



Memoriarako Urratsak.

Dispertsioaren 16 biktimen aitortza



“Biktima bezala hartuko dira kalte, gorputz edo buruko lesio, sufrimendu emozional, galera finantzario edota oinarritzko eskubideei eragiten dieten funtsezko kalteak jasan dituzten pertsonak, estatu kideen zigor legedia urratzen duten egintza edota omisioen ondorio diren egintzetatik eratorritako kalteak, botere gehiegikeria agintzen duen estatuaren legedia barne.”

(NBEn Batzar Orokorra)

Berriz ere gerta ez dadin

Ruben Garate
Argi Iturralde
Iñaki Balerdi
Antxoni Fernandez
M.C. S.
Leo Esteban
Jose Mari Maruri
Pilar Arsuaga
Alfonso Isasi
Iñaki Saez
Asier Heriz
Sara Fernández
Karmele Solaguren
Natividad Junko
Rosa Amezaga Mendizabal
Arantza Amezaga Mendizabal

Aitortu gabeko hamasei biktima

Hamasei dira dispertsio eta urrunketa politikak eragindako hildako biktimak.

Hauek biktima gisa aitortuak izan daitezen bide zailari hasiera ematera zuzendua dago lan hau. Arriskuak eta oinazea exijitzen dituen kartzela politika baten eraginpean izan ziren biktimak baitira.

Gure lanak bidean topatuko dituen zailtasunen jakitun gara, gizarteak apenas bere lehen pausoak eman baititu biktima guztien errekonozimenduan. Era berean, badakigu ere heriotza hauek trafiko istripuen artean erraz kamuflatu daitezkeela. Baina heriotza horien atzean, hauek eragin dituzten kausa zehatzak daude: baldintzak, baldintzatzaileak eta kartzela politika batek gudan, euskal preso politikoen senide eta lagunongan, dituen ondorio oso larriak. Eta badira ere erantzule zuzenak: dispertsio politika onartu, martxan jarri eta mantentzearen arduradunak.

Dispertsio politikak 26 urte bete ditu dagoeneko. 26 urte hauetan zehar, salbuespenezko kartzela politika hau mantendu eta bere zoritxarreko ondorioei garrantzia kentzeko gobernuek duten erraztasunaren lekuko izan gara. Politika hau bere horretan mantentzeko benetako nahiarengatik batzuetan, tolerantzia soilarengatik bestetan, axolagabekeriagatik beste askotan, dispertsio politikak ez du bere desaktibaziorako beharrezko oposiziorik izan, eta 26 urte luze hauetan oinazea sortzeko bere helburua mantentzen jarraitzea lortu du. Errepidean, 16 biktima eraman ditu. Istripuan gertatutako heriotzak izan dira, baina ez istripuzko heriotzak.

Hori horrela kontsideratzeko argudioak azaltzea da honako lanak duen helburua. Pertsona hauek dispertsioaren biktima bezala hartzera garamatzaten argudioak. Ez ditugu oinazeak kuantifikatuko, ezta alderatuko ere. Ekintza inozoa ez ezik, herri honen sufrimendua atzean utziko duen eszenatoki berri baten alde lan egiteko gure konpromisoaren aurkakoa delako ere. Sufrimendu guztia. Baina gurea hor dago, eta eragin zuten zergatiek bizirik jarraitzen dute. Ondorioek bizirauten dute, gobernuen nahia hauek mantentzea delako. Eta 16 alditan, hilgarriak izan dira.

El Mundo, 1998ko otsailaren 14a

1989an, Barne ministroa Jose Luis Corcuera zen, Justizia ministroa Enrique Mujika eta Espetxe zuzendari nagusia Antonio Asuncion. Bi ministerio horiek ados jarri ziren preso bakoitzaren tratamendu indibidualizatuan oinarritutako espetxe politika berri bat bultzatzeko, presoek birgizarteratzen laguntzeko helburuarekin.



Blanco y Negro, 1988ko apirilaren 24a

Justizia Ministerioko bozeramaile Alberto Elordik adierazi zuenez, presoek sakabanaketak espetxe erregimenaren arloko arrazoiei erantzuten die. Izan ere, lehen graduan sailkatuta daudenez, ezin dituzte beren kondenak preso prebentiboekin batera bete, Espetxeek buruzko Lege Orokorrak hala agintzen baitu.

Urrunketa eta sakabanaketa.

1989an, egungo kartzela politikaren ezarpen orokorra ematen da.

1978tik 1987ra, euren dispersiorako lehendabiziko pausoak ematen direnean, euskal preso politikoak Madril, Soria, Herrera de la Mancha, eta Puerto de Santa Marian kartzelatuak zeuden. Aldi honetan eta Madril helburu zuen desplazamendu batean zehar gertatzen dira senideen lehendabiziko bi heriotzak.

Dispertsio politikaren hartzaileak

Euskal preso politikoak euren etxeetatik ehundaka eta milaka kilometroetara dauden karteletan urrunduta daude espexera sartzen diren une beretik. Ez da aldi baterako edo iragankorra den egoera bat. Aitzitik, epaituak izan aurretik hasi eta zigorra erabat bete arte mantentzen da. Pertsona hauentzat – eta politika honek laguntzen dituen beste urraketa batzuetan sartu gabe –, dispertsioak euren gizarte, kultura eta familia ingurumariaren urruntasun iraunkorra suposatzen du. Eztabaidatu ezinezko errealitatea, ordea, egoera hau preso desertotzera bideratua dagoela da, eta bere kabuz soilik, birgizarteratzeko martxan jarri zen ustezko helburua gezurtatzen du.

Jorge Fernández Díaz.

Espainiako Barne Ministroa. El Diario Vasco. 2015-09-20

“ETA desegiten bada, dispertsioa erakunde terroristaren ondorio den heinean, bada, txakurra akabatuta, akabo arazoa. Ez genieke bere presoek dispertsio politika izaera orokorrarekin ezarri beharko.

Guretzat, euskal presoek guraso, seme-alaba, anai-arreba, lagun, ikasketa kide edo lankideontzat, dispertsio politika zigor gogorra da. Inongo dokumentuan agertzen ez den eta inongo epaimahaik ebatzi ez duen sententzia. Euren hurbilekoak izatea, horixe da soilik gure delitua.

Astero, espainiar legediak ezartzen duen 40 minutuko bisita baterako –kontrolatua eta ia bere osotasunean grabatua dena –ehundaka kilometro bidaiatu behar ditugu. Hilabete, urte eta hamarkaden buruan desgaste fisiko, psikiko eta ekonomiko jasanezinean bilakatzen diren bidai ordu luzeak.

Guk, euskal preso politikoek senide eta lagunok, bi aukera baino ez ditugu: dispertsioak gure osasun –fisiko zein psikikoan – eta ekonomian duen pisu suntsitzailea jasan, edo gure familia eta sentimendu loturei uko egin.

Dispertsio politikaren helburua

“Kartzela erregimenaren arrazoiak” eta presoek “pribilegioak” (40 minutuko bisita bat pribilegioa da?) ezeztatze behararen ustezko argudioen atzean, helburu bezala xantaia besterik ez duen neurri politikoa bezala eman da ezagutzera dispertsio politika.

Denbora honetan zehar, eskubideak kontrapartidei lotuta egon daitezkeen ustean izan da hezia gizarteko sektore bat. Zigor edo

sari bat betez eman edo kendu daitezkeela.

Mendekuaren pedagogia behin ezarrita, dispertsioak ez du moztaroen beharrik, eta bere ondorioak ETArek desagiteari lotuak geratzen dira.

Behin eta berriro esan dugu, dispertsio politikaren diseinuan gure sufrimendua jaso zegoela. Gure senideak dispertsatuak ez baina urrunduak zeudenean, orduan bisita eskubidearen ariketak desplazamendu luzeak eta gastu ekonomiko nabarmenak egin behar izatea suposatzen zuen. Autobusak edo konpartitutako desplazamenduak antolatzeke aukerak, nekea kendu, arriskuak murriztu eta gastu ekonomikoa arintzen zuen. Urrunketa senideontzat neke gehitu bat izatea dispertsio politikaren helburuetako bat zen.

Behin eta berriro esan dugu, dispertsio politikaren diseinuan gure sufrimendua jaso zegoela. Gure senideak dispertsatuak ez baina urrunduak zeudenean, orduan bisita eskubidearen ariketak desplazamendu luzeak eta gastu ekonomiko nabarmenak egin behar izatea suposatzen zuen. Autobusak edo konpartitutako desplazamenduak antolatzeke aukerak, nekea kendu, arriskuak murriztu eta gastu ekonomikoa arintzen zuen. Urrunketa senideontzat neke gehitu bat izatea dispertsio politikaren helburuetako bat zen.

Arriskuak

Ehundaka senide jartzen gara abian errepidean astebururo. Baina askotan, behintzat hilean behin, lanegunetan jarri behar izaten gara. Laneko aste eta bidai luzearen artean inolako deskantsurik izan gabe abian jartzen gara, eta berriz ere, inolako atsedetik hartu gabe lanari ekiten diogu beste behin, errepidean 24 ordu baino gehiago igaro ostean.

Ezin gaitezke atsedetik hartzerik geratu: lan eta bisita ordutegien artean ditugun orduak eta bidaiarako beharrezko ditugunak ez digute uzten.

Ia derrigorrez bolantearen aurrean jarri behar izaten gara, ezin garelako “kotxe-ibilaldietan” antolatu, bete behar ditugun ordutegiekin bat etortzeko transbordoak eta loturak behar dituzten garraioak erabiltzea oso konplikatu da, eta, era berean, guztiz zaila da senide batzuen eta besteen ordutegiak bat egin dezaten saiakerak kotxea konpartitu eta gidatzea txandakatzeke.

Tentsio jarraituan bidaiatzen dugu, ordulariari adi uneoro, atzeratu eta bisita gaitzera eramane gaitzakeen edozein gertaeren menpe; bisita gauzatzeko edozein arazoren beldurrez, beste kartzela batera egindako bapateko lekualdaketa bat dela-eta, pertsona ikusi izan gabe bueltatzeko beldurrez.

El País, 1989ko maiatzaren 15a.

Honek (dispertsioak), Euskaditik abiatzen diren egun zehatzetako famili kideen kotxe ibilaldien amaiera ekarriko du. Aktibista bakoitzak, (kartzelako) sindikatuek azaltzen duten bezala, bere galeriari dagokionean komunikatuko da. Bigarren abantaila bat ere desagertuko da: astero izateko eskubidea duten bi komunikazioen metaketa, beraz gutxienez 40 minutuz segidan dituen bisitaz gozatzen dute.

Euriarekin, elurrarekin, edozein baldintzatan bidaiatzen dugu, guretzat, bisita eskubideak prezio bat duelako.

Ordu luzez eta derrigortutako baldintzetan bidaiatzen dugu, eta baldintza hauek sortzen dituzte istripuak.

Gure senide presoak bisitatzeko eskubidea dugulako eta haiek bisitatuak izan daitezen eskubidea dutelako bidaiatzen dugu.

- 10 istripu 2014 urtean zehar eta 25 familia kide kaltetuta.
- 8 istripu 2013 urtean zehar eta 19 familia kide kaltetuta.
- 14 istripu 2012 eta 42 familia kide

Zenbakiek hitz egiten dute.

Bidaiatu egiten dugu gure lotura afektiboek uko egitearen alternatiba, gure kide, senar, seme-alaba, anai-arreba edota lagunari uko egitea, pentsaezina delako.

ABC. 2015-06-24

Maila nazionalean, epaimahaiek ezarritako jurisprudentzia Administrazioaren iritzia alde agertu da. (...) Auzi hau bi testutan lantzen da: Kartzela lege organiko orokorrean (1979. urtekoa) eta berau garatzen duen Kartzela Araudian. Legearen 12. Artikulua zera dio: "Establezimenduen kokapena, kartzela Administrazioak erabakia izango da ezarritako lurralde eremuen barruan". Artikulu horrek berak ñabar-dura bat egiten du: "dena den, bakoitzak kopuru nahikoa izan dezan saiatuko da kartzela beharrak asetzeko eta zigortuen gizarte deserrotzea saihesteko"

Baina ezarritako baldintzetan bidaiatzen dugu, eta berariazko baldintza zailetan. Zilegia den inongo helburu politikok ezin dezake eska errefusa hau egitea. Eskubide honi uko ez egiteko orain ordaintzen ari garen prezioa inposatzen digun edozein helburu politiko, ezin daiteke zilegia izan.

Horregatik, nahiz eta gure senide eta lagunak bidaiatzeko erabakia gurea den arren, ardura ez.

Dispertsioaren legaltasuna.

Dispertsio politikaren eta sorrarazten duen kaltearen ondorioen ardurak saihesteko beharra, bai eta hauek ezkutatze beharra ere, egungo kartzela politikak, bereiziki epaimahai espainiarren aldetik, jasotzen duen babes legalera arreta desbideratzera daramate. Egoera hori erregulatu beharko lukeen testua interpretazio negatiboenei margena emateko behar beste zalantzaragarria aurkezten da. Logikoki, gobernu espainiarrak jarraitzen dituen interpretazioak horiexek dira. Eztabaidatu ezinekoa da gainera, ez epaimahaiek, ez kartzela legediak, ez dutela neurri horren ondorioek oinarritzko

eskubideen gainean duten eragina aztertu: hasi bisitei ezartzen dizkien zailtasunetatik eta beraz kartzelatutako pertsona orok bere hurbilekoekin komunikatzeko duen eskubidetik, bere senide eta ingurumaria afektiboari eragiten dion kaltearekin jarraituz. Kalte fisiko, buruko kaltea, suntsipen ekonomikoa eta heriotza dira emaitza. Horrela, dispertsioaren problematika guztia, legala den edo ez, edota presoak kartzela batean edo bestean daudenera murrizten da. Bere benetako garrantzia hartzen ez duen auzia, baldin eta ez soilik dituen ondorioak, baizik eta zeinek sufritzen dituen ezkututzen bada ere.

Guk geuk dispertsio politikaren aurka borrokatzen 26 urte daramagula, badakigu parametro horietan kokatuz, eztabaida faltsu bat eratzen dela. Lapidazioa legala da Iranen eta heriotza zigorra Estatu Batuetan, baina horrek ez die kentzen oinarritzko eskubideak urratzen dituzten legeak izatea.

Nahiz eta egin dugun dispertsio politikaren zirriborroa azalekoa izan, bere ondorio larriak baloratzeko aurkeztu ditugu giltzarriekin asmatu dugula uste dugu. Gure ondorioak ulertzeko beharrezko liratekeen eta eskatuko lizkiguketen dokumentazio, informazio eta testigantza guztiak entregatzera konprometitzen gara.

- *Dispertsio politika helburu arras politikoa duen salbuespenezko politika bat da, eta inolaz ere kartzela arlokoa, Espainiako Barne Ministroa esatera datorren bezala.*
- *Politika honen diseinuan, senide eta lagunak, euskal preso politikoen ingurumaria afektiboa, eurengan presioa eta xantaia egiteko erabiliak gara. Erabiliak izaten ari gara, publikoki adierazten duen bezala, ETArekin amaitzeko nahian.*
- *Hartara, gure osasun fisiko eta mentala zein hondamendi ekonomikoaren kontura baino aurre egin ezin zaien baldintza eta eskaera gogorreki men egin behar diegu.*
- *Baldintza horiek 16 pertsonen bizia galtzea ekarri dute.*

26 urteetan zehar, kartzela arduradun, indar politiko eta erakundeei gure egoeraren eta egungo kartzela politikak eragiten dizkigun kalteen berri eman diegu, eta halere, bere oinazea sorrarazteko parametroetan mantentzeaz gain, gobernuek jarraitu egingo dutela errepikatzen dute.

Ez dago beraz salbuespenezko politika honek eragin duen minaren inguruko ezagutza gabeziarik, eta haatik, esan dugun bezala, bere arduradunek min hori sortzeko borondate garbia dute.

Nizkor Taldearen txostena, 1998an
Madrilko erkidegoko kartzeletara egin-
dako bisiten emaitza, Carlos Páino
Capón eta Virginia Díaz Sanz.

87 urtetik aurrera euskal presoek dispertsioari hasiera ematen zaio, aplikatu diren kartzela politiko okerrenetarikoa, presoaren oinarritzko eskubide urratzailea.

Dispertsio politika zuzenbide internazionalaren arauen kontra doa. Zentzu honetan, edonolako atxilotze edo espetxeren pean dauden pertsona guztien babeserako Printzipioen Multzoko 20. Printzipioak hurrengoa ezartzen du: "Atxilotuta edo preso dagoen pertsonak eskatzen badu, bere bizitokitik zentzuzko distantzia batera dagoen atxilotze toki edo espetxean mantenduko da baldin eta posible bada.

Aitortu gabeko hamasei biktima


Hamasei dira dispertsio eta urrunketa politikak eragindako hildako biktimak.

Ruben Garate
Argi Iturralde
Iñaki Balerdi
Antxoni Fernandez
M.C. S.
Leo Esteban
Jose Mari Maruri
Pilar Arsuaga
Alfonso Isasi
Iñaki Saez
Asier Heriz
Sara Fernández
Karmele Solaguren
Natividad Junko
Rosa Amezaga Mendizabal
Arantza Amezaga Mendizabal

1982-09-29

ROSA ETA ARANTZA AMEZAGA MENDIZABAL

Koldo Amezaga euskal preso politikoaren arreba Aranda de Duero izan zuten istripu batean hil ziren; Madriletik (etxetik 500 km-tara) itzultzen ari ziren, bertan euren anaiaren aurka egindako epaiketatik. Istripu latz honetan Koldo Amezagaren beste arreba bat ere larriki zauritu zen.



1990-07-01

PILAR ARSUAGA ETA ALFONSO ISASI

Maribi Ramila euska preso politikoaren amak eta lagunak istripuan hil ziren Pola de Sanabria (León) herrian. Ezbeharrak, Ourenseko espetxean (etxetik 680 km-tara) Maribi Ramila bisitatuta etxera itzultzen ari zirela gertatu zen.



1997-03-14

ANTXONI FERNANDEZ

Angel Figeroa preso politikoaren amonak, bizia galdu zuen 75 urterekin bere biloba Alcala Mecora bisitatzera (500 km-tara) zihoala. Ezbeharrak Aranda de Duero gertatu zen.



1998-06-22

JOSE MARI MARURI

Barakaldon izandako istripuan hil zen, Basauriko espetxean preso aurkitzen zen bere seme Lander Maruri bisitatzera zihoala.





1999-04-03

M.K.S

Txetxu Fernandez Perez de Nanclares presoaren laguna, Logroñoko espetxean (169 Km-tara) bisita bat burutu eta etxera itzultzen ari zela hil zen.



2000-02-12

RUBEN GARATE GONZALEZ DE ARTAZA


Jose Antonio Fernandez presoaren laguna, Alcala Meco espetxean (etxetik 500 Km-tara) bisita egin eta etxera itzultzen ari zela izandako istripuaren ondorioz hil zen.



2001-09-08

IÑAKI SAEZ ETA ASIER HERIZ

Lourdes Txurruka preso politikoaren lagunak Brievako espetxera bidean (etxetik 400 Km-tara) galdu zuten bizia. Autoan zihoan beste pertsona bat ere larriki zauritu zen.



2003-02-28

ARGI ITURRALDE ETA IÑAKI BALERDI ITURRALDE

Juankar Balerdi preso politikoaren amak eta anaiak Almeriara (etxetik 1032 Km-tara) joateko bidaian galdu zuten bizia. Aita ere, Joxe Balerdi, autoan zihoan eta ospitalera eman behar izan zuten, larriki zauritu baitzen.

2003-11-29

SARA FERNANDEZ

Iñaki Etxeberria euskal preso politikoaren presoaren laguna Aranda de Duero izandako istripu baten ondorioz hil zen Valdemoroko (etxetik 520 Km-tara) espetxera bidean. Kotxe berarekin zihoan Izaskun Urkijo, Iker Zubia presoaren bikotea, egoera larrian eraman zuten ospitalera.



2004-06-03

LEO ESTEBAN NIETO

Esteban Esteban Nieto euskal preso politikoaren anaia (espetxean jasandako asistentzia ezagatik hildakoa). Leo, Puerto de Santa Mariatik bueltan (etxetik 1135 Km-tara) 89an izandako istripu batetik eratorritako lesio larriengatik hil zen urteetara.



2004-12-06

KARMELE SOLAGUREN

Ekain Gerra preso politikoaren ama, Sorian izandako istripu baten ondorioz hil zen, Alcala Mecora (etxetik 500 Km-tara) bere semea bisitatzera zihoala. Bere senarra, Ekainen aita, ospitalera eraman zuten egoera larrian. Ez da sekula lesioetatik osatu, egun ere bere osasun egoera oso delikatu da.



2007-12-25

NATIVIDAD JUNKO OLEAGA

Txagorritxuko Ospitalean hil zen Unai Gonzalez Azua bisitatzeko asmoz Teruelen izandako istripuaren ondorioz. Berarekin bere alaba; Unai Gonzalezen bikotea, eta honen gurasoak zihoazten.





Etxerat

Euskal
Preso eta Iheslari
Politikoen
Senide eta Lagunen
Elkartea

ETXERAT ELKARTEA

Perkaiztegi kalea, 11
20120 Hernani (Gipuzkoa)
etxeratlagun@etxerat.info
Telf: 646 02 88 84